

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 4.018 milioi eurotan finkatu du 2019rako gastuaren muga, aurten baino 129,2 milioi gehiago

%3,32ko igoera gertatu da 198,5 milioi euroko finantzarioak ez diren diru-sarreraren gehitzearen aurreikuspen batengatik, % 0,1ko defizit-helburua kalkulaturik

Asteazkena, 2018.eko irailak 12

Nafarroako Gobernuak 4.018 milioi eurotan finkatu du 2019. urterako gastu ez-finantzarioaren muga, beraz, 2018an onartutako ordainketa publikoaren aldean 129,2 milioi euroko igoera ekarri du (% 3,32). Zenbateko horretatik, 229 milioi euro Tokiko Ogasuneko Funtsera bideratzen dira eta 566 milioi diru-ekarpenera, beraz administrazioen arteko transferentzia hauek kenduta, gastu muga ez finantzieroa 3.222,6 eurokoa da, hau da, 2018ko gastuaren muga baino %3 handiagoa.

Kopuru hori ezartzeko, Nafarroako aurreikuspen makroekonomikoak, datorren urterako bilketa-balioespenen hobekuntza eta aurreikusitako zor eta defizit betebeharrak kontuan hartu dira. Horrela, 2019an ezin izango da izan Foru Komunitateko Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 0,1a baino handiagoa.

Zehazki, Foru Ogasunak 3.973,3 milioi euroko diru-sarrera ez finantzarioak biltzea aurreikusten du 2019an. Horiei, kontabilitate nazionalako doiketei dagozkien 23,2 milioi euroak gehitu behar zaizkie eta 21,6 milioi euro defizit helburua betetzeko gehieneko muga dena. 2018ko defizit helburuaren murrizketa pasa da %0,4tik (82,7 milioi), %0,1ra 2019an (21,6 milioi). Horrek, aurtengo gastu muga 61 milioi euro gehiagokoa izatea ekarri du.

Aurreikuspen makroekonomikoak

Zehazki, foru Gobernuak % 2,7ko hazkundera balioesten du Nafarroak datorren urtean izango duen benetako BPGn. Bestalde, Gobernuak % 2,8 inguruko hazkundera aurreikusten du enpleguan 2018. urte honetarako, eta %2,2koa 2019rako.

Izapideak

Behin gastuaren muga finkatuta, Departamentuek 2019rako gastu-proposamenak egingo dituzte. Behin proposamenak jasota, Nafarroako Gobernuak 2019rako aurrekontuen aurreproiektua onartuko du eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilura, Ingurumen Kontseilura eta Toki Araubideko Batzordera bidaliko irizpena eman dezan. Urrats hori, proiektua onartu aurreko urratsa da eta Nafarroako Parlamentura bidaliko du eztabaidatzeko.